

SENIOR LAGUNTZAILE KOOPERATIBOAK (SELAKO)

2010. urtean, gure Elkartek ohar honen goiburuan dagoen izena daraman proiektua jarri zuen martxan, helburu honekin: enpresa kudeaketa kooperatiboan esperientzia eduki eta aurre erretiroa edo erretiroa hartua duten pertsonen esperientzia aprobetxatzea, erakunde desberdinen beharrei (MONDRAGON, unibertsitateak, elkartek, GKEak...) erantzuteko, irabazi asmorik gabe. Ia 10 urteko bide honetan, gure Elkartek proiektu honetan egin duen jarduera handia izan da:

MONDRAGON barruan egiterik ez dagoen zabalkunde kooperatiboko jarduerak, bai Otalorara doazen taldeei bai MUren fakultateetara doazenei zuzenduta. 100 agerraldi baino gehiagotan azaldu dugu Mondragon esperientzia kooperatiboa, bertako lankidetzaren mekanismoen funtzionamendua, erretiratutako zuzendari kooperatibista baten bizipenak, Laboral Kutxaren eta Eroskiren errealitateak, gure printzipio kooperatiboak eta, finean, MONDRAGONek eskatzen digun guztia.

2.- Lankidetzaren unibertsitateekin, negozio eskolekin, goi mailako beste prestakuntza zentro batzuekin eta Mondragon esperientzia kooperatiboan interesa duten beste enpresa erakunde batzuekin. Gure presentzia oso handia izan da halako erakundeetan. 200dik gora aldiz kolaboratu dugu. Estatu Espainoleko unibertsitateen zati handi batean izan gara; nazioartean, berriz, Frantzia, Erresuma Batua, Suitza, Kuba, Peru, Argentina, Hego Korea, Mexiko eta Eslovenian izan gara, eta Mondragon esperientziaren alderdi desberdinak azaldu ditugu, hots: Mondragon esperientziaren alderdi desberdinak, eredu bera, MONDRAGONen internazionalizazioa, esperientzia bera, Laboral Kutxaren eta Eroskiren funtzionamendua... Egin zaigun balorazioa, oro har, oso altua da.

3.- Mondragon Unibertsitatean, Lankin, Otaloran eta kooperatibetan hasitako prestakuntza kooperatiboko programetan MONDRAGONekin egindako kolaborazioak.

Orain artean ez dugu MONDRAGONen eskaera berezirik jaso. Gure kolaborazioa Korporazioko zuzendari ohien esperientzia erakustera mugatzen da, besterik ez. Azkenaldian, Lanki eta kooperatiba batzuk kolaborazioak eskatzen ari zaizkigu.

4.- Balio kooperatiboen sustapena batxilergoko eskoletan, ikastoletan eta lanbide heziketako ikastetxeetan. Esperientzia interesgarri honek fruitu garrantzitsuak eman zituen aurreneko jarduera urteetan, 2010etik 2014ra bitartean; ondoren, ordea, erakundearen eskaera faltagatik lausotuz joan zen. Orduan bezala, orain ere uste dugu etorkizun oparoko jarduera bat dela, eta Gazteria Proiektuaren barruan Sustapenari hel dakiokela berriro ere.

5.- Irabazi asmorik gabeko erakundeei laguntzea, haien beharrezanean erantzuteko. Halako erakundeetan, gure presentzia ez da oso aktiboa izan, horietako batzuekin lan egin badugu ere, hala nola Unesco Etxea, Mundukide, Mundubat, Munduko Landagunea, Harreman, Etiopia-Utopia eta Alboan-ekin.

6.- Beste kolaborazio batzuei dagokienez, Lankirekin lankidetzan ibili gara ikerketa proiektuen batean, baita MONDRAGONekin ere, Eraldaketa Sozialerako Proiektuan hain zuen, eta 2019 honetan Gizabidea Fundazioaren Berrikuntza Sozialerako Plataforman parte hartzen gabiltza.

Etorkizunera begira:

1.- MONDRAGONek zabalkunde kooperatiboa indartu nahi du, bai kanporantz bai mundu kooperatibo barrurantz, baina eredu edo formatu desberdin batetik abiatuz, eta gure Elkartearen babesa oso inportantetzat eta erabilgarritzat jotzen dute. Landuko dugu gai hori.

2.- "Unibertsitateekiko kolaborazioak" proiektuari dagokionez, Elkartek hausnarketa prozesu bati ekin dio gaiari orientazio berri bat emateko. Hasteko, ideia berriak, metodo desberdinak eta hats gaztea izango duen lantalde berri bat sortzeko beharra ikusten da, unibertsitateetara intentsitate handiagoz gerturatzeko, pertsona egokiak topatzeko eta zer "beharrizan eta zer nahi" dituzten ikusteko. Oso inportantea da, baita ere, ALEk kolaboratzeko "modalitate" askotarikoagoak planteatzea. Eta funtsezkoa irizten diogu MONDRAGON inplikatzeari, haren jardute ildoak guri jakinaraziz.

3.- Prestakuntza kooperatiboan, MONDRAGONek eta bere erakundeek eskatzen digutenari erantzungo diogu.

4.- Batxilergo eskola, ikastola eta lanbide heziketako ikastetxeetan balio kooperatiboak sustatzeari dagokionez, uste dugu ALEn dihardugunok aintzat hartzeko moduko balio erantsia ekar dezakegula gure esperientziaren bitartez. Bide egokiagoak bilatu behar ditugu. Gure ustean, Gazteria proiektuak lehen lerroan egon behar du sustapen horretan emaitzak lortzeko. Oso interesgarria iruditzen zaigu gai hori lantzea.

5.- Irabazi asmorik gabeko erakundeei laguntzeari dagokionez, Elkartean hausnarketa sakona egin beharko dugu kolaborazioak nola landu eta kolaboraziook egin behar ote ditugun jakiteko.

6.- Azkenik, uste dugu MONDRAGON-ALE lankidetzan esparruaren barruan ikerketa arloan, mintegietan eta abarretan lankidetzan jardun dezakegula MU barruan, baita ikerketa proiektu berrien sustapenean ere, MONDRAGONekin bat eginez.

Arrasaten, 2019ko azaroaren 17an